

Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

Brasilgo Fordlandian inperio kapitalistaren arrasto ahantziak

Detroiteko auto-ekoizleek hondoa jotzean *american way of life* famatuaren porrota ikusi dute askok. Greg Grandin idazleak lotu ditu Detroiteko aurri industrialak eta Henry Fordek Brasilgo Amazonian eraiki zuen Fordlandia, gainbehera doan inperioaren arrastoak direlakoan.



INPERIOA ATZERAKA DETROITEN hasi zen, ez Iraken. Afganistanen bezala Iraken ere bukatu arte eutsi zioten AEBek. Ez, inperio yankia gibelka zetorrela adierazi zuten seinaleak etxean bertan ikusi ziren, Detroiteko hiru auto enpresa erraldoiak –Ford, General Motors eta Chrysler– hondoratu zirenean. AEBetako hondamendi hau historiariak bere orrietan jasoko du Britainia Handiarentzako 1948an India galtzea izan zenaren pareko.

Ideioak Greg Grandinek idatzi ditu *Tom Dispatch* gune ezkertiarrean. Grandin historia irakaslea da New Yorkeko unibertsitate batean eta liburu ugariren egile, azkena *Fordlandia: the raise and fall of Henry Ford's forgotten jungle city* (Fordlandia, Henry Fordek oihanean eraikitako hiri ahantziaren eraikuntza eta erorketa).

*Tom Dispatch*ek publikatu eta *Rebelionek* gaztelaniaratu duen artikuluan, liburuaren hariari jarraituz, Grandinek erakusten du Fordlandian duela mende erdi agerian geratu zirela inperialismo amerikarraren ahuleziak. Grandinen ustetan, ordurako hasia zen Detroiten gainbehera ere: 1950-60etan Ford, General Motors eta Chrysler hasita zeuden fabrikak hiritik ateratzen, sindikatu gabeko langileen bila. 1989rako, Berlingo harresia erori

zenerako, usina izandako lurzoru asko sasiak hartuta zeuden, 15.000 etxe hutsik. Geroztik, hamaika eraikin eder abandonatu da.

Detroit esatea Henry Ford esatea ere bada. Han Ford hasi zen langileei eguneko bost dolar ordaintzen, AEBetako eta agian munduko auzotegi bizienak eraikiaraziz. “Fordek –dio Grandinek– abadearen fedez predikatzen zuen bere egia: produktibitatearen eta soldaten eten gabeko hazkundera elkarri lotzeari esker erdietsiko zela gizakiaren lan nekosoa gozatzea eta langile auzo oparoak sortuko zirela, aldi berean kontsumitzaileen eskaria zabalitzea, korporazioen etekinak handituko zirelarik”.

Baina fordismoak bere baitan zekartzan galbidearen haziak: montajeko lana gero eta terea txikiagotzen zatikatzearekin eta garraiobideen eta komunikazioen arintzearekin, korporazioek ihesi egin zioten “soldata handiak, merkatu handiak” arauari. Sistemaren ezintasun hori herritarrek ez zuten ikusi luzaz, Detroit urrezko bihurtu zuen eredu mundu osora zabalduko zela zioen propagandak itsututa. Izan ere, ez al ziren Amazonian Detroit berri bat eraikitzen ari Fordlandia izenekoak? Entzun haren historia.

Henry Fordek kontrolatzen zituen kotxeak egiteko lehengai ia guztiak,

bazituen oihanak eta meategiak. Gurpiletarako kautxua falta zuen, komertzianten ingelesei eta holandarreri erosi behar ziena, Asiako zuhaitzetatik aterea. Horregatik, 1927an 10.000 hektarea alokatu zizkion Brasilgo gobernuari Amazonian, Tapajos ibaiaren inguruan.

1928an Lake Ormoc baporean eraman zituzten Tapajos ingururaino beharrezko tresna guztiak: uretarako ontziak, gruak, hondeamakinak, traktoreak, lokomotora bat, izotza egiteko makinak... Janaria ere bai, metaka. Forden firma berria Companhia Industrial do Brasil bataiatu zuten eta ordura arte Boa Bista izandako parajea Fordlandia.

Istilua frango eta kautxurik ez

1994an Fordlandian eta horren ondoren eraikitako Belterran ikusitakoak kontatu zituen Mary A. Dempsey-k *The Michigan History* kazetan. Hasieratik sentitu zuen Michiganeko 1930etako eraikin artean zebilela... baina ohartuz Amazonian zegoela. Dagoeneko hiri haietatik gehiena oihanak bereganatu du, edo arras hondatuta dago, baina tarteka turistaren batzuk erakartzeko adina kontserbatzen dute.

Fordlandiak bazuen herriko plaza, espaloiz hornitutako kaleak, etxeetan ura eta komunak, baziren jardinak, zine aretoa, arropa eta zapata dendak,



Argazki handiko irudia Mary Dempsyk plazaratu zuen *Michigan History Magazine* aldizkarian Fordlandiara egindako txangoan oinarritutako erreportajea apaintzeko. Dempsyk Fordlandia eta Belterrako auzotegietako eraikinei antza handia hartu zien Detroiten 1920ko hamarkadan auto-fabriketako langile eta kargadunentzako eraikitakoena: etxe politak ilaran jardintzeko banarekin, barruan iturriko ura eta komuna, argindarra ere bai (elektrikako postea lekuko), aurrean karrika zabala oinez paseatzeko espaloio eta guzti, elizaz gain ospitalea, dendak, kirol instalazioak eta abar luzea. Irudi txikian Ford T modeloko berebela dago oihanean barrena. Amazonasen kautxua merke eskuratzeko gain, harantz *american way of life* hedatzea zen Henry Forden ametsa.

izozkitezkoak eta lurrin dendak, piszi-
nak, bederatzi zuloko golf zelaia, teni-
serako kantxak... Eta kaleetan, prefos-
ta, Ford T autoak. Gainera, Belterra
auzoan eraiki zuten ospitale ederra,
laurogei gela, hogeitamar erizain,
medikuak, anestesista, denetik.

Baina oihanaz gain oihaneko langi-
leak ere zibilizatu nahi zituen Fordek.
Michiganeko ordutegia ezarri zitzaie-
n, goizeko 06:00etatik bazkalondoko
15:00etara. Osasuna dohainik. Etxeak
denentzako, arduradunentzako
hobeak noski, beharginentzako etxola
txukunak. Asteburuetan karrikako
dantzaldiak, AEBetako poesia eta
musika emanaldiak. Eta alkohola
debekatuta.

Obreroen lehenbiziko istilua *self-
service*an lehertu omen zen: “Ni lane-

ra etorri naiz, ez zain egotera” egin
zuen ohi behargin batek, ilaran ego-
teaz haserre, eta jangela txikitu
zuten. Lan ordutegia desagokia zen
tropikoan eguzkitik ihesi ibiltzen
direnentzako. Alkohola, berriz, ezin
izan zuten inoiz erabat debekatu.

Baina Fordlandiak izan nahi zuen
faktoria eredu-garriarentzako okerra-
goa izan zen gainerako guztia. For-
deko buruzagiek ez zituzten kalkula-
tu oihaneko urtearok, uholdeak eta
idortek, malariaren erasoak, bero
itogarria, zomorrok, idortearekin
ibaiko kaia urrunegi geratzea, eta
mila horrelako.

Oker kalkulatu zuten ere milioi
eta erdi kautxu arbola landatzeko
modua. Brasildik Asiara eramandako
*Hevea Brasiliensis*ak paradisua aurkitu

zuen antipodetan, han zuhaitzok ez
baitzuten etsairik hasieran. Baina
landareok Brasilen denak lerroan
elkarren hurbil ipinita, ez oihanean
basati hazten diren moduan, xomo-
rroek eta gainerako eritasunek laster
hondatu zituzten.

1934an konpainiak bigarren lurral-
de bat hartu zuen bere gain, Belterra,
eta han gauzak ez ziren askoz hobeki
joan. 1940eko hamarkada hasieran
garbi ikusi zen: Fordlandiak ez zuen
bere denbora guztian tona bat latex
eman eta Belterrak, pestizidak errara-
ka usatu ondotik, 1943an 750 tona
lortu zituen. Oso urrun Fordek
urtean behar zituen 38.000 tonetatik..
Gainera, bitartean, kautxu sintetikoa
azaldu zen.

1945ean, gerran ikasitako espe-
rientziak estrategia aldaketa zekar-
kiela aitzakiatzat hartuta, Fordek
250.000 dolarren truke itzuli zion
bere balizko harribitxia Brasilgo
gobernuari. Batzuek diote gaur
oihana eta aurriak diren hartan 20
milioi xahutu zituztela, 30 diote
besteek.

Mary Dempsyk duela hamabost
urte lantoki bakarra aurkitu zuen
Fordlandian, latexezko guanteak eta
kondoiak egiten zituena. Greg
Grandinek zera dio amaierakoan:
“Fordlandiaren aurriak, Detroitenak
bezala, AEBetako kapitalaren buru-
zagien monumentuak dira, Fordek
bezala Estatu Batuek gizadi osoa-
rentzako eredu unibertsala eskaini-
zen zutela uste izan zutenena”. ■

www.argia.com/nethurbil.php
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegi@euskalnet.net

zuri begira